



Lectio divina

1. IRAKURGAIA: Zer dio testuak?

2. GOGOETA: Zer dio niretzat/guretzat testuak?

- ✓ Gure izate eta bizitzearen osagaia da sufrimendua. Zein da nire Getsemani, nire saminik handiena, fisikoki nahiz espiritualki? Nola eram izan dut edota daramat hori? Zein zentzu ematen diot neure saminari, sufrimenduari, gaixoaldiari?
- ✓ Nire gurutzean, nire «Getsemanin», zerk edota nork eskaintzen dit kontsolamendua, animoa itxaropena?
- ✓ Apostoluen lozorroa sufrimenduari ihes egin nahia da, besteen sufrimenduaren aurrean beste aldera begiratzea, norberaren sufrimendua arbuiatzea. Nola jokutzen dut neure sufrimenduaren aurrean? Eta besteen sufrimenduaren aurrean?
- ✓ Saminaren erdian otoitz egiten irakasten digu Jesusek, etsipenean korapilatuak gelditu gabe. Gauza al naiz, sufritzen ari naizenean otoitz egiteko? Laguntzen al dit otoitzak, nire mugak baino haratago dagoen Itxaropenera neure burua irekitzen?

3. OTOITZA: Testu honetan oinarriturik, zer esango genioke Jainkoari?

Eska diezaiogun Jaunari eutsi gaitzala sufrimendua etortzean, etsirik itxaropena gal ez dezagun. Bat egin dezagun Jesusekin otoitzean: «Aita, nahi baduzu, urrun ezazu Niregandik edari samin hau. Hala ere, egin bedi zure nahia, ez nirea». Bat egin dezagun salmolariaren otoitzarekin ere: «Zergatik zaude, ene barrena, hain goibel? Zergatik hain urduri? Itxaron Jainkoarengan! Goretsiko dut, bai, berriz ere, haren presentzia salbatzailea» (Sal 42 [41]).

4. KONPROMISOA: Zer sortzen du nigan/gugan testu honek?

Geure sufrimendua korapilatuak ez gelditzen irakasten digu Jesusek. Jainkoak gu bakarrik inoiz ere uzten ez gaituela ohartzen laguntzen digu otoitz egiteak, baizik eta beti eusten digula une zailetan. Sufritzen ari denari beraren saminean lagun egitera, itxaropena, maitasuna eta fedea eskaintzera ere deituak gaude: besarkada bat ematera, isilik izanik ere begiratu bat egitera, arretaz entzutera, elkarrekin otoitz egitera, elkarriketa izatera...

JAINKOA
JARTZEN
DUT NITZE
ITXAROPENA

Hitzarekin
topatuz

8. Fitxa, lk 22, 39-46

AITA, URRUN EZAZU NI-
GANDIK EDARI SAMIN HAU
SUFRIMENDUA





Lk 22, 39-46

³⁹ Ondoren, Jesus atera eta Oliamendirantz abiatu zen, ohi zuenez, eta ikasleak ere bai haren ondoren. ⁴⁰ Hara iristean, Jesusen esan zien: «Egizue otoitz, tentaldian ez erortzeko». ⁴¹ Eta, haiengandik harrikada bat bide aldendurik, belauniko honela egiten zuen otoitz: ⁴² «Aita, nahi baduzu, urrun ezazu niregandik edari samin hau. Hala ere, egin bedi zure nahia, ez nirea». ⁴³ Zeruko aingeru bat agertu zitzaion, kemen eman ez. ⁴⁴ Eta, larriak harturik, oraindik lehiatsuago egiten zuen otoitz. Izerdia tantaka zerion lurrera, odola bezain lodi. ⁴⁵ Otoitzetik jaikirik, ikasleengana joan zen; nahigabearen nahigabez lokaturik aurkitu zituen, ⁴⁶ eta esan zien: «Nola zaudete lo? Jaiki eta egin otoitz, tentaldian ez erortzeko».



Textua ulertzeko

- ✓ Errealitate oso sakona da gizakiaren bihotzean sufrimendua; ez dugu asmatzen sufrimenduaren esanahia erabat aurkitzen; zeren gure bihotza zoriona irrikatzen baitu beti, baina ez du inoiz erabat lortzen. Gure bizitzaren zatia da sufrimendua eta jakin behar genuke fede- eta itxaropen-begiz begiratzen. Jesusen ez digu teoriarik eskaintzen oinazeaz eta sufrimenduaz. Berak jasan zuen sufrimendua bere haragian, eta horregatik erakuts diezaguke Jesusen sufrimenduari zentzua bilatzen, zergatik galderari erantzunik ematen ez badigu ere.
- ✓ Getsemaniko baratzean, Oliamendi magalean, Jesusen egindako ototza aipatuz hasten dute lau ebanjelioek Jesusen nekaldiaren, pasioaren, kontaera. Jesusen egiazko nekaldia Getsemanin izan zela adierazten du San Lukasek. Ez zen baratzean hil, baina barrenean zuen sufrimendua gurutzean jasan zuen heriotza salbatzailearen adinakoa izan zen.
- ✓ Getsemaniko une latz hartan Jesusen arima nola zegoen adierazteko grekozko agonia hitza darabil San Lukasek; Itun Berri osoan hementxe beste inon ez da azaltzen, eta borroka, gudu, neke izugarria esan nahi du. Grekozko hitz hori gaztelaniazko agonia hitzarekin nahasi ezker, azken arnasa eman aurreko egoera ulertuko genuke. Baina ez da hori grekozkoaren adiera egokia. Getsemaniko baratzean Semearen arima nozitzen ari zen barne-borroka adierazi nahi du ebanjelariak, beraren azken borroka, probaldi erabakigarriaren aurrean Kristoren arimak sentitzen zuen estutasun larria. Probaldi erabakigarria honako hau zen: Aitaren nahia azkeneraino betetzea ala irtenbidea gizakiaren kalkuluen arabera bilatzea. Mateok eta Markok esapide hau darabilte: «Hiltzeko zo-

rian nago tristuraz»... Hori bera adierazteko, San Lukasek hau dio: «Izerdia tantaka zerion lurreraino, odola bezain lodi».

- ✓ Goibelaldi larri hau ez zuen Jesusen oinaze fisikoren batek eraginda. Pentsa daiteke gainera zetorkion heriotzaren aurrean, gurutzean josia nozitu zuen heriotzaren aurrean, senti zezakeen izuak eragina zela. Hala ere, gizakiak han berea duen hiltzeko beldurrak berak ez du argitzen Getsemanin Jesusen zuen nahigabe ikaragarria zergatik zen. «Aitak leporatu dion edari samina edan» behar zuen Jesusen (Jn 18,11), azkeneraino bete Jainkoaren asmo salbatzailea. Zer zen, ba, edari samin hori? Mundua den gaiztakeriaren aurrean sentitzen zuen samin izugarria, gure bekatu guztien zama: «Jaunak haren gain bota zuen gu guztion errua» (Is 53, 6). Aita Jainkoari Semeak zion maitasun neurrigabeak eraginik eta Anaiak bere senideei, aldi guztietako gizon-emakumei, zien maitasun neurrigabeak eraginik onartu zuen hori Jesusen. Erospena, salbazioa, azken batean bi fiat (egin bedi, latinez) esateari esker etorri zen: Mariaren fiat Nazareten (Lk 1,38) eta Jesusen Getsemanin (Lk 22, 42).
- ✓ Ikasleak lo egoteak hona hau esan nahi izan dezake: errealitatetik eta sufrimendutik ihes egin nahia. Lukasek dio nahigabearen nahigabez zeudela lo ikasleak. Jonas profeta ere lo zegoen ekaitza etortzen (Jon 1, 4-6). Sufrimenduaren aurrean askok beste alde batera begiratzen du; baina ezinezkoa da sufrimenduari ihes egitea, gurutzeari ihes egitea (gure izatearen misterioa halaxe da).
- ✓ Aitaren aurrean Jesusen egin zuen ototzak lau osagarri ditu: 1) deia: «Abba, Aita»; 2) sinesmen-aitorpena: «nahi baduzu» (dena dezakezu); 3) eskaria: «urrun ezazu Niregandik edari samin hau»; 4) Aitaren nahia betetzea eta bere burua Aitaren esku uztea: «hala ere, egin bedi zure nahia, ez nirea». Gure sufrimendua, gure samina, ototz bihurtzen irakasten digu Jesusen. Jesusi begiratu, saminaren erdian ototz egiten ikasten du sinestudunak, samina ototz bihurtzen. Saminean ototz egiten, Jesusen bezala. Jesus ez da bere saminean korapilatua gelditzen; ototz egiten du, bere Aitaren esku jarritz.
- ✓ San Lukasek dioenez, Getsemaniko borroka ikaragarri hori (agonia) gainturik, aurre egingo die Jesusen sufrimendu guztiei, semeari dagokion konfiantza osoz, barne-bake handiz, barkamena emateko jarrera amultsuaz, denei salbamena aginduz.

